HIRIKO TXALETA — BRUNET 4 - 6

D MAILA





Lucas Alday, 1931.

Deskribapena

Txalet bikia, erdisotoa, behegaina edo beheko solairua eta bi goi solairu dituena. Teilazko estalkia, isurki anitzekoa. Fatxada entokatua, alboko fatxadetan begiratoki irtenekin, dekorazioa zurezko bilbadura simulatuta bigarren solairuan eta harriz estalitako zatiak landa aparailuan, zokaloan eta beheko solairuan. Jatorrizko proiektu komuna Zumalakarregi 10 eta 12rekin, baina lotura formalik gabea eraikin baten eta bestearen artean.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

2.- Erregimen espezifikoa.
- A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: Ez.
- B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: Harrizko elementuak eta aparailua.
- C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: Handitzerik gabea. Brunet 4-6 esku hartzeko unitatearen barruan egotearen ondoriozkoak.